

# NAROA AMÉZAGA VÉLEZ

**L.H. 3. zikloa**

## Pozaren bila

"Saskibaloia gustuko dut eta lagunekin euskaraz egitea"

### Pozaren bila

Esnatu nintzenean, elurra ikusi nuen leihotik barra-barra, botala, ez neukan manta kentzeko gogo handirik baina bat-batean, ama sartu zen gelara hau esanez:

-Esnatu, Sara lartana!

-Ongi da! - erantzun nian nagitasun handiarekin.

Esnatu, eta nire beteleharrak egitera joan nintzen. Orduan, egutegiari begiratu eta martxoaren 21 zen, hori ezustekoa! Udaberria hasteko eguna!

Momentu berean, hau galdetu nian neure buruari: "Baina, baina, udaberria hasteketan eta elurra zerutik behera, hori nola izan daiteke!"

Amak, supermerkatura joan behar zuela frutak, esnea, zukua, galletak eta kafea erostera esan zidan eta ni etxean gelditu nintzen manta-pean urrutiko agintea esku batean eta krispetak beste eskuan nituela.

Telebistan, eguraldia zegoen eta elurra egiten

jarraituko zuela esan zuen, hura bai etsipena!
Elurra Kalean, eta ni sofan bero-berotan nire manta goxo-goxoak laztandurik, Konturatugabe lokartu egin nintzen.
Bat-batean, elurrez estalitako leku hotz batean agertu nintzen. Leku hori iluna zen oso tristea, gainera horko jendea oso berekoia zen eta beti zegoen bakarrik.
Orduan, Kaletik nindoala jende guztia ezkutaturik zegoela ikusi nuen. Nik, banekien zergaitik: poza-ren falta, udaberriaren falta, argitasunaren falta... Segidan, udaberriaren eta alaitasunaren bila abiatu nintzen. Tipi-tapa, Tipi-tapa... eraikin handiko leku triste batera heldu nintzen. Eraikinak, grisak, harrizkoak eta altuak ziren, oraindik tristura zen nagusi. Gehiago ibili behar nuen baina oso nekatuta nengoen eta autobusez joatea erabaki nuen. Zera esan nion gidariari:
-Eman txartel bat, Portlandiara mesedez.-
-Tori!- Erantzun zidan oso umore txarrez.
Andre ile hori baten ondoan eseri nintzen. Berehala, andre hori, hitz egiten hasi zitzaidan esanez:

-Kaixo ume. Nola duzu izena?
- Kaixo, ni, Sara naiz eta leku honentzat pozaren eta udaberriaren bila nabil.- erantzun nion.
-Ba, ni, Maialen naiz eta esploratzaile bat naiz. Zure misio berbera dut.-
Biak elkarrekin, Pozlandiara heldu eta pozaren eta udaberriaren bila hasi ginen.
Herri hau guztiz desberdina zen: argia zen nagusi, jendea alaia eta maitekorra.
Hainbeste ibili, eta ibili, leher eginda amaitu genuen, beraz, ostatu batean gelditu ginen.
Gelak ederrak ziren. Oheak gorriak, maitasunaren kolorekoak, bigunak eta nahiko handiak.
Maialen eta ni, lotara joan ginen oso berandu baitzen.
Hurrengo egunean, herri horretako jendeari zertara etorri garen kontatzera joan ginen.
Orduan, herri horretako alkateak poza, argia eta maitasuna adierazten zituzten hiru sinbolo erakutsi zizkigun eta berehala lakoitzetik apur bat eman eta zera esan zigun:
- Hartu eta eraman zuen herriaren erdira, udaletxera, hain zuzen.

- Ongi da eta eskerrik asko bihotz-bihotzez.- erantzun genion begiak malkoz beterik pozaren. Gero, autobusa hartu eta triste, ilun eta kolokan zeuden herriei sinbolo bakoitzetik pixka bat eman eta hau esan zuten herritarrek:

- Eskerrik asko! Udaberriaren eta pozaren etorrera ospatuko dugu festa bat eginez.-

Bat-batean, sofan agertu nintzen manta lurrean botata zegoela. Ametsa zen abentura hori!

Momentu berean, leihorantz begiratuz loreak ikusi nituen arboletan eta eguzki borobil-borobila zeruan. Beraz, zera pentsatu nuen: "Udaberria heldu zaigu! Eguraldian esandakoa gezurra zen!"





## AGURNE ASATEGUI CARRACEDO

**L.H. 3. zikloa**

**Berdintasuna**

**"Kirol zalea naiz"**

# BERDINTASUNA

Bazen behin etxola txiki batean familia bat:
aita, ama eta umea, Itziar zuena izena. Itziarrek ez zuen
nahi barbiekin jolastu, baizik eta,
autoekin, kamioiekin, trenekin...
Egun batean, ikastolan
hasi zenean andereñoak
esan zuen:
- Bihar nahi baduzue ekarri
al duzue jostailu bat. Denak
batera esan zuten:
- Bale ekarriko dugu!
Hurrengo egunean, denak zituzten
jostailuak, baita Itziarrek ere.
Eskolara sartzean, jostailuak
ateratzeko esan zuen andereñoak.
Itziarrek berarena atera zuenean,
sorpresa itzela eduki zuten. Kamioi
bat ekarri zuen!
Denak barrezka, lehertu nahian hasi
ziren kamioia mahai gainean ikustean, andereñoa ere.
Baina Itziar oso triste jarri zen. Etxera heltzean, Egun on!
esan eta logelan sartu zen negarrez.



- 1 -

-Zer gertatzen zaizu alaba?- esan zuen amak-
-Ba denak barre egin didatela, kamioia eramateagaitik, neska naizelako. Baina nik kamioi gidaria izan nahi dut!
-Ez kezkatu horregaitik alaba, ez da ezer pasatzen dakizun legez, ni suhiltzailea naiz, ez da oraindik nesken arteko ogibide arrunta, baina hor nago, gizonen artean neska bakarra.



-Begira gauzatxo bat kontatuko dizut:
Ni, suhiltzailea izatea pentsatu nuenean oztopoak baino ez nituen aurkitu, etxean, lagunen artean, eta noski akademian baina nik argi neukan nahi nuena eta aurrera jarraitu nuen. Gaur pozik nago besteen errespetua lortu dudalako.
-Agian, gustatuko litzaizuke nola lortu nuen jakitea ez da!
-Bai, ama.
-Begira Itziar -jarraitu zuen amak- besteen errespetua lortu nahi baduzu besteak errespetatu behar dituzu, eta zure lanean baita bizitzako jarreran zintzo jokatu, horrela, nahiz eta, hasieran zailtasunak izan ikusiko duzu nola lortzen duzun gustuko ogibidea.

-2-

Amaren hitzak asko lasaitu zuten Itziar, eta hurrengo egunean ikastolara heldu zenean andereñoak esan zion:

-Itziar, parkamena eskatu behar dizugula uste dut, arrazoia duzu. Oraindik lehengo aurreiritziak ditugu eta batzutan honelako hankasartzeak egiten ditugu. Baina sentitzen dut atzo eman genizun atsekabeagatik.



Ondoren gelara sartu eta denak hasi ziren hausnartzen gertatutakoaz. Geroztik, Itziar oso pozik joan zen ikastolara. Hogei urte pasatu dira eta Itziar kamioi gidaria da.




Agurne

-3-



## BINGEN CARBÓ BASTERRETXEA

### L.H. 3. zikloa

### Unibertsoan galduta

**“Oso lan garrantzitsua egin arren, arrez ahazten dira ikusten ez diren horietaz”**



Espaziontzia apurtuta zuten, ez zekiten non zeuden eta espaziontzin konpontzeko piezak galdu zituzten. Ez zekitenez zer egin bost egunetan zehar burua apurtzen egon ziren. Azkenean, bakoitzak bere konponbidea aurkitu zuen:

- Badakit, hemendik kalkulo onak egin baditut 200 argi urte barru Lurrean egongo gara – zorik Gaizka – orduan salto egitea proposatzen dut.
- Ez, nik zuk baino ideia hobea dut – esan zuen Mikelek – estralurtar bat aurkituko dugu eta ea espaziontzirik duen galdetuko diogu.

Ordu batzuk geroago esan zuen Mikelek:

- Aski da, horrela denbora baino ez dugu galtzen eta ez gaude horretarako, orain konponbidea behar dugu eta horretarako erabakia hartu behar dugu.

Apur batean eztabaidatu ondoren esan zuen Mikelek:

- Azkenean biak egingo ditugunez nik esan dudana egingo dugu lehenengo. Hasi prestatzen ze bihar estralurtarraren bila hasi behar dugu.

Hurrengo egunean bila hasi ziren. Horrela ibili ziren egunak, asteak, hilabeteak, urteak, baina ez zuten ezer aurkitu. Azkenean Gaizkak amore eman zuen eta Mikelek esan zuen:

- Ba, ez zaigunez beste erremediorik geratzen zuk esan duzuna egingo dugu.

Eta horrela izan zen, handik bi egunera salto egin zuten espaziora.



2

Orain bi astronautak espazioan galduta daude,
Gaizkaren ideia tonto horregatik. Biak gose
eta egarriz daude, baina hala ere, bata besteari
burlatzen ari dira. Espaziontzi asko bidali
dituzte, baina ez dute ez ezer, ez inor aurki-
tu. Mikel eta Gaizka espazioan hegan ari di-
ra, ez dakite zer gertatuko zaien, baina
lurrekoentzat alferrik da, jada jendeak hil-
da daudela pentsatzen du eta.



Bingen Carlos Basterretxea
SEBER ALTUBE LH5.B



# NEREA LANDAZABAL BARRENA

**L.H. 3. zikloa**

## Itsasotik eguzki-sistemara

**“Saskibaloian jokatzea eta lagunekin jolastea dut gogokoen”**



Itsasotik
Eguzki-sistemara

Bazen behin Nueva York-eko Manhattan auzoan bizi ziren neska talde bat. Talde honek itsasoarekin lotura handia zuenez oso abenturazaleak ziren. Ane Miren kirolari amorratua zen, Eneritz, ordea, oso kuxkuxera, eta Andere, berriz, aurrelana...

Behin 2010-eko neguko egun hotz batean, ozeano Atlantikora bidaia bat egitea pentsatu zuten. Lanean hilabeteko oporrak hartu zituzten eta Genito Farmiño izeneko itsasontzi bat alokatu zuten

Bidaiara joan baino egun bat arinago, itsasontzia aztertzen egon ziren eta bukatzean maletak prestatzeari ekin zioten: arropak, janaria, linterlak, motxila, iparrorratza, astronomiako ekipoa, zientziako materialak... behar beharrezkoak gauza guztiak hartu, prestatu eta ohera joan ziren.

Gau erdian Maddi esnatu eta esne-baso baten bila abiatu zen. Orduan konturatu zen gauza garrantzitsu bat ahaztu zitzaiola: karpeta gorria argazkiekin! Segituan hartu, maletan sartu eta ohera joan zen berriro.

Hurrengo egunean, goizeko 9:00etan etxetik irten eta gertuen zegoen portura joan ziren. Bertan itsasontzia zegoen lekura joan eta barrura sartu ziren. Arakatzen zeuden bitartean, Mireiak esan zuen:

- Hau bai itsasontzi handia! Perfektua da gure bidaiarako

— Bai horixe! Erantzun zion Aniak.

Motorra martxan jarri eta abentura eta emozio berrien bila abiatu ziren.

Ane Miren denbora pasa nahian, mugikorrarekin bere mutil lagunari, Etxaun Tagonabari mezuak idazten zebilen. Oso lagun onak ziren eta egunero botatzen zizkioten elkarri mezuak, gutunak... Bitartean Anderek, lema gidatzen zuen, beraz, bera zen arduraduna.

2 ordu pasa eta gero, hamaiketakoa egiteko batu ziren itsasontziko sukaldean eta ondoren bakoitza bere postura joan zen. Nerea eta Mireia itsaspera joan ziren bizidunei eta arrokei argazkiak ateratzera. Bertan edozein motatako izakiak aurkitu zituzten: marrazoak, arrainak, itsas-sugeak, itsas-lehoiak, dortokak...

36 minutu pasa zituzten ur azpian eta gero atera egin ziren. Itsaspeko jantziak kendu eta lehortzen utzi zituzten. Bitartean irudi guztiak ordenagailura pasatzen hasi ziren.

Gaua heldu zenean, itsasontzia mugitu egin zen kolpe bortitz baten eraginez. Aiorak salto bat eman eta galdetu zuen:

- Zer izan da hori?

- Ez dakit! Bihar aztertuko dugu.- erantzun zuen Eneritzek.

- Ongi da.- Aiorak.

Hurrengo egunean goizeko 8:00ak aldera jaiki ziren eta itsas azpira murgildu ziren denak. Oraindik ilun zegoenez linterna piztu eta izaki hori bilatzera joan ziren.

Ez zuten aurkitzen. Itsasontzirako bidean zeudela, munstro

ikaragarri bat aurkitu zuten. Itxuraz marrazo bat zirudien baina tamainaz 10 aldiz handiagoa zela ematen zuen. Denak izuturik zeuden eta bat-batean Nekanek esan zuen:

- Hau bai hau trasto zaharra! Honek 65 urte eduki behar ditu gutxienez! Eta zenbat jaten duen!

Oiane harriturik geratu zen eta esan zuen:

- Ni hemendik banoa! Izaki hau Erromako koliseoa baino handiagoa da!

Denak itsasontzirantz zihoazela hondatuta ikusi zuten. Popa zuen zulaturik eta konpontzen saiatu ziren. Horretarako tresna mekanikoak hartu eta berri-berri utzi zuten. Bat-batean, itsasontzia, hegan hasi eta neska taldea eguzki-sistemarantz abiatu zen.




Lehenengo, Saturno bisitatzen zeudela, bere eraztunetatik hasi eta mota guztietako bideo eta argazkiak atera zizkioten.

Hurrengo planeta aztertzera zihoazela astro berri bat aurkitu zuten. Planeta bat zirudien eta kolore urdina zeukan. Handia eta biribila zen eta zelai berdeak



zituen. Denak harriturik zeuden baina aldi berean pozik. Planeta berri bat aurkitu baizuten. Beste planeta guztiak aztertu ondoren, Lurrera itzuli ziren eta handik aurrera oso ikerlari ospetsuak egin ziren.

## AMAIERA

Nerea Landazabal



## JULEN VILLAMIL BUSTINZA

**L.H. 3. zikloa**

**Lore magikoa**

**“Gustatzen zait istorioak idaztea”**

### LORE MAGIKOA

Antzinako garai batean, urruneko herrixko batean, Khali izeneko mutil bat bizi zen. Hamaika urte zituen, baina inork ez zuen esango sei urte baino gehiago zituenik, oso txikia eta argala baitzen. Begiak beltz-beltzak zituen, eta ilea legain beltzak; aurpegia beltzarana eta irribarrea zuria eta goxoa.



Khali lau neba-arrebetatik zaharrena zen eta denak elkarrekin etxola txiki batean bizi ziren. Ama ardiak eta beste abere batzuk zaintzera joaten zen egunero egunsentiarekin batera. Ardiak, beste abereak bezala, etxolaren ugazabarenak ziren eta katilukada esnearekin ordaintzen zion amari egindako lana. Aitak bizikleta bat zeukan eta hirira joaten zen lanera. Lan berezia zuen: hirira etorritako atzerritarrak leku batetik bestera eramaten bizikletaz. Ama zein aita lehen-lehen eginda heltzen ziren etxera, baina ez esku hutsik, Amak ekarritako esneaz gain, aitak irabazitako arroza izaten zuten.

Oso pobreak izan arren, pozik bizi ziren eta haien aurpegietan irribarrea zen beti nagusi. Khalik eta bere neba-arrebek ez zuten ezagutzen eskola zer zen, baina aitak gauero kontatzen zizkien istorioak entzutea gustatzen zitzaien eta irrikitan egoten ziren gaua

heltzeko.

Egun batean, Khaliren aita hirirantz zihoala pertsona bat ikusi zuen bide erdian erorita. Lehenbailehen hurbildu zen eta bizar zuridun agure bat zela ikusi zuen. Agurea zaurituta zegoen, oso gaixorik, eta Khaliren aitak besoetan hartu eta bere bizikleta gainean ospitalera eramatea erabaki zuen.



Ospitalerako bidean, agureak hiltzeko zorian zegoela jakinik, eta hil aurretik bere ahaleginak eskertu nahian, honela esan zion:



"Zu zara lagundu didan bakarra eta horregatik sekretu hau kontatuko dizut. Mendi horren tontorrean lora berezi bat dago. Lore ederra eta magikoa da, aurkitzen duenari bere desioak betetzen baitzaizkio. Baina ezin du edonork aurkitu, bihotz onekoak bakarrik." Eta hitz horiek esanda hil zen agurea.



Sekretu hura kontatzeak ahuldu egiten zuela esateko ere ez zion astirik eman.

Khaliren aita lur jota geratu zen eta gauean etxera heldu zenean bere umeei kontatu zien gertatutakoa. Aho zabalik geratu ziren, batez ere Khali. Hurrengo egunean, aita oso makalik esnatu zen, zutik egoteko ere indar barik eta Khaliri eskatu zion

lanera joateko lore ordez. Khali lore aitaren esnak betetzeko nahian bizikleta hartu eta hirirantz abiatu zen. Orduan, agureak aipatutako lorea aurkitzea bururatu zitzaion. Pentsatu eta egin; bizikleta saldu eta vialazitako diruarekin mendirako tresnak erosi zituen. Eta berehala abiatu zen mendirantz. Mendian gora joan ahala, zer desio eskatu pentsatzen ari zen: "Lehenengo, nire aita osa dadila, gero, etxe berri bat izan dezagula, ondoren, pobreziatik atera gaitezela eta, azkenik, dirua izan dezagula besteei laguntzeko."

Zazpi egun pasa eta gero, tontorrera heldu zen. Neka-neka eginda eta hotzak hilik zegoen, baina azkenean lorea aurkitu zuen. Lore distiratsua zen eta ikusi eta berehala jakin zuen hura zela lore magikoa. Pozaren-pozez, lorea toltora sartu eta ziztu bizian abiatu zen etxerantz.

Etxera heldu zenerako aita hiltzeko zorian zegoen eta ama eta neba-arrebak bere ondoan negarrez. Orduan, Khalik lorea toltotik atera eta lehenengo desioa eskatu zuen: "Nire aita osa dadila, lore magikoa." Eta desioa bete zen eta aita sendatu egin zen. Oso pozik zeuden baina goseak hiltzen eta orduan bigarren desioa eskatu zuen: "Gure gosea ase dadila, lore magikoa." Eta etxola janariaz bete zen baina haien pisuarekin etxola behera etorri zen eta hirugarren desioa eskatu zuen: "Adreiluzko etxe berri bat izan

dezagula, lore magikoa." Atoan izugarrizko jauregian aurkitu zuten euren burua. Ezin zuten sinistu euren suertea. Baina ondasunak itsutu egin zituen, ez zuten ezertaz pentsatzen euren aberastasunaz baizik.



Egunak joan ahala lorearen distira murrizten hasi zen. Apur-apurka desio guztiak desagertzen ari ziren eta Khalik eta bere familiak ondasun guztiak galdu zituzten. Berriro ziren pobreak eta ondasunak ez ezik lagunak ere galdu zituzten. Orduan konturatu ziren ondasunik handiena familia eta lagunen maitasuna dela.



## IÑAKI GABIKAGOGEASKOA

**L.H. 3. zikloa**

**Ihauteriak**

**"Kantatzea eta dantzatzea gustatzen zait"**

### Ihauteriak

Bazen behin Iñaki izeneko mutiko bat. Ikasketetan oso baldarra izan arren, bazituen alde onak ere. Behin ikastolan lagunek galdetu zioten ea nola joango zen mozorroturik Ihauterietan. Berak berriz esan zien agian ez zela mozorrotuko. Baina eguna joan ahala pentsatu zuen makarraz jantzita. Hurrengo egunean lagunek hori jakitean, irainak besterik ez zuten egin Iñaki:

— Ja, ja, makarroniko joango zara ja, ja!

Iñakik minduta negarrari eman zion. Andereñoak jakinminez hurbildu eta dena entzun eta jakin nahi zuen. Berehala zigortu zituen lagunak.

Hala ere laster adiskidetu ziren. Eztabaidatu zuten ea nola jantziko ziren, Ihauteri eguna hurbil baitzegoen. Iñaki Gizonarekin ez zuen nahi berriz aurrean ik

eta amore eman zuen.

Baina Iñakik arazo larri bat zeukan: ez zuen jakin non erosi mozorroa! Bere amari esan zion, baina amak erantzun zion:

—Ez dakit ba! Txinoetan erosi beharko dugu orduan!

—Bai zera! Nik ez dut erosiko mozorroa txinoetan.— erantzun zion Iñakik.—

—Ba, orduan zerk erabaki. Ez baduzu nahi txinoetan erosi, zai daukazu!

Iñaki haserre bizian bere logelora joan zen. Momentu hartan bertan, bere lehengusu bat pasadan urtean gangsters joan zela gogoratu zen. Berehala telefonoa hartu eta lehengusuari deitzera joan zen.

Berehala lehengusuak mozorroa eraman zion. Iñaki batetik oso urduri zegoen baina, bestetik poz poz lehertzen. Honek gogo handia zuen Ihauterietarako, lagunekin jolastu eta ondo pasatzeko.

Egunak joan eta egunak etorri, azkenean heldu ziren Ihauteriak.

Lehenengo egunean, ondo pasatu zuen lagunekin, barrezka eta jolasten.

Bigarren egunean, berdin baina apur bat aurpegi txarragoarekin.

Eta hirugarren egunean berriz, egun guztienetatik txarren.

Hau pentsatzen hasi zen eta esan zuen barrekikoz: zergaitik joan behar naiz nire lagunek esaten didatenez mozorrotua. Ez, ba, bihar makarroiz jantziko naiz?

Eta horrela egin zuen: Ihauterien azkenengo egunean, makarroiz joan zen jantzita eta jendea hasi zitzaion:

—A zer nolako mozorroa daukazun! Oso polita da! –batek–.

— Asko gustatzen zait zure mozorroa. Superpolita da! –beste batek–.

Momentu hartan bertan Iñakik bere lagunekin topo egin eta esan zioten inbidiaz:

—A zer nolako itxura daukazun! –baina barrutik esan nahi zuten: oso polita da! Itzel zaude.

Hori entzunda gure mutila joan eta jendea liluratzen ibili zen kalez-kale

# AMAIERA

Ondo egoten da zeure lagunek esaten dutena egitea baina noizbehinka egin zeure buruak esaten dizuna ere!



## ITSASNE FORURIA ASTEINZA

**L.H. 3. zikloa**

### Bidaia sorgin herrira

**"Saski baloira jolastea asko gustatzen zait"**

# BIDAIA SORGIN HERRIRA

Baziren behin bost neska-mutiko, Amaia, Leire, Jon, Iñigo eta Maria. Denek, hamaika urte zituzten eta egunero elkarrekin joaten ziren eskolara. Beti geratzen ziren goizeko 9etan barazki denda aurrean eskolara joateko.

Egun hartan, denda aurrean kamioi bat zegoen dendara barazkiak eta frutak zekarrena. Kamioia marrubi kaxaz beterik zegoen. Amaia eta Joni marrubiak izugarri gustatzen zitzaizkien eta begira-begira geratu ziren. Bat-batean kamioi barrutik ahots goxo-goxo batekin emakume dotore batek esan zien:

– Gustatzen al zaizkizue marrubiak?
– Bai, bai!. Asko gustatzen zaizkigu
– esan zuten Amaiak eta Jonek
– Nahi dituzue marrubi batzuk? Esan zuen lagunei ere ekartzeko eta sartu barrura!
– Bai orain bertan!




Bost neska-mutikoak korrika hurbildu ziren eta denak sartu ziren kamioira marrubiak jateko asmoarekin. Bat-batean kamioiaren atea -plum! itxi egin zen.

– Zer gertatu da? Galdetu zuten gazteek kamioia martxan jartzen zen bitartean.
– Ja, ja, ja! Entzun zen eta konturatu ziren emakume dotore hura sorgin itsusi eta zahar-zahar bat bihurtu zela, Sudur-luzea garatxo handi batekin eta hortz ustelak zituena.

Lagun taldea oso beldurturik zegoen.

— Ez badidazue zuen gaztetasuna eta edertasuna ematen sorginen herrira eramango zaituztet.

Neska-mutikoak ez zeuden prest hori egiteko. Orduan sorginak, kamioian, sorginen herrira eraman zituen. Bertan denak itsusiak eta zaharrak ziren. Neska-mutikoek sorginari galdetu zioten zer egin zezaketen sorginen herritik irten ahal izateko. Sorginak erantzun zien:

— Zareten bezalakoak izaten jarraitzeko eta zuen etxeetara itzultzeko hiru frogatxo gainditu beharko dituzue.

Orduan neska-mutikoak ados zeudela erantzun zuten.

— Hor doaz frogak:

1- 3 kilo marrubi jan behar dituzue hogei minututan.

2- Hamabost minutu ibili behar duzue errailaren gainean, erori gabe.

3- Berrogei minututan, sorginak galdu duten eraztuna aurkitu beharko duzue.

Lehenengo froga, Amaiak eta Jonek egin zuten marrubiak, izugarri gustatzen zitzaizkielako. Oso gustura ibili ziren eta soberan gainditu zuten.

Bigarren froga Iñigok eta Leirek egin zuten, oso onak bai ziren gimnasian oreka mantentzen.

Azkenengo froga Mariak egin zuen "Altxorraren urrezko giltzak" jolasa gustatzen zitzaiolako eta zaletasun horrek, froga erraz gainditzen lagundu zion.

Hiru frogak soberaz gainditu ondoren sorginak ez zuen beste erremediorik, gaztetxoak aske uztea baino.

Goizeko 9ak eta minutu batzuk zuenean Amaiaren lagunak, e-
gunero bezala, barazki denda aurrea iritsi ziren eta bertan aurki-
tu zuten Amaia marrubiz betetako kamioiari begira. Amaia oso ames-
laria zenez lagunei itxaroten zegoen bitartean sorgin herria bidaia
amestu zuen eta kontatutakoarekin batera denak beldurtuz eskolara abia-
tu ziren.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN ETA IRTEN
DADILA ALLENDEKO PLAZAN!!








KOLDO GEZURAGA SEIJIDO
ÁLEX BENGOETXEA ARÉVALO


**L.H. 3. zikloa**

## Txapelduna txapeldun

**"Futbolera jolastea eta irakurtzea atsegin dut"**

# Txapelduna Txapeldun

Yuki mendian bizi zen perretxiko bakorti bat zen. Txapel gorridun perretxiko hau oso lotsatia zen, honen ondorioz ez zeukan lagunik. Arraroatzat jotzen zuten denek baino besteekin



berba egiten ausartzen zenean honelako erantzunak jasotzen zituen: "Nik ez dut perretxiko kokolo batekin jolastu nahi" edo "Zu ez zara ni bezalakoa, higuingarria da desberdinekin jolastea". Yuki egunero oso triste eta burumakur buelta eman eta bere leku ezkutura abiatzen zen. Urjauziaren aurreko haran bateko zulo batetik jaisten zen. Ondoren lur barruan pasahitza esaten zuen, hau da: "Txapelduna dator", orduan ate bat irekitzen zen eta bide batetik aurrera jarraituz gela handi batera iristen zen. Alde batean mahai handi bat zeukan eta beste aldean kirola egiteko gimnasio bat.

Hau zen Yukiren gela ezkutua, dena berak eraikita. Bertan pasatzen zuen egun osoa: Irakurtzen, kirola egiten, kantatzen e.a. Behin kanpora irten zen haize hartzeko airearekin berari noizbehinka asko gustatzen zitzaiolako naturako elementuak ikustea eta gozatzea, baina egun hartan perretxiko alkatea "Txapelburu" jauna kezkatuta ikusi zuen bere inguruan zeuden perretxikoei esanez:

- Txapeldun maiteok, krisis batean gaude, laster izango da perretxikoak batzeko garaia eta ez daukagu zer eginik, ez daukagu non ezkutatu, gozokiak eskolako atean baino gutxiago iraungo dugu!

Orduan ideia itzel bat burura etorri zitzaion Yukiri; hau esaten zuen bere baitan "Nire ezkutalekua handia da eta agian denak bertara eramaten baditut milaka lagun izango ditut".



Eta hori egin zuen, ondorio onekin gainera. Hamar bat furgonetak aparkatu zuten baita beste horrenbeste autok, bertatik ondoren esku hutsik joango ziren gizonak atera ziren bakoitza bere motxilekin eta bertan otarrea eta labaina zutelarik.



Bi ordutan ez zuten ezer ere aurkitu ezta hirutan ezta lautan. Non zeuden perretxikoak? Yukiren etxean, noski!, ondo pasatzen. Gizonek etsita buelta erdi eman eta euren garraiobideetan etxera abiatu ziren.

Ordutik aurrera perretxiko guztiek ezagutzen dute yuki. Askorentzat euren salbatzailea da eta oso ondo pasatzen du orain bere lagun berriekin jolasten txapeldun txapeldunak. Besteak baino bihotz hobeagoa zeukala erakutsi zuen Yukik eta beste perretxikoak damututa daude. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila Yukiren ezkutalekuan eta irten dadila Gernikako plazan.

EGILEA: Koldo Gezuraga

MARRAZKIGILEA: Alex Bengoetxea



## IRATI ETXANIZ

**L.H. 3. zikloa**

### Alfonbra magikoa

**"Niri saskibaloia eta marraztea gustatzen zaizkit"**



ALFONBRA MAGIKOA

Bazen behin Merlin izeneko mago bat.
Merlin argia eta bihotzona zen. Ilea zuria zuen
eta bizar luzea. Begi berdeak eta trage luzea.
Merlini gehien gustatzen zitzaiona esperimentuak egitea
zen, baina beti aldrebes irteten zitzaizkion.
Euskadin bizi zen.

Egun batean Merlin bere laborategian sartu zen.
Bere mahai gainean poltsa bat aurkitu zuen
Kleopatrak bidalia. Han barruan alfonbra bat
zegoen. Alfonbra txuria eta horia zen. Merlinek
pentsatu zuen esperimentu batekin magiko bihurtu
ahal zela. Bere amak erakutsitako teknika
egin zuen baina bakarrik ahoa eta begiak jarri
zizkion. Hurrengo egunean Merlin berriro saiatu zen
eta kasualitatez bizia eman zion. Alfonbrak hitz
egiten zuen eta oso dibertigarria zen. Merlinek
berarekin tango izugarriak egiten zituen eta baita
kontzertu izugarriak ere.



Egun batean alfonbratxoa paseoan zihoala beste mago bat agertu zitzaion. Ali deitzen zen. Dedek deitzen zien "Arriskutsu" oso arriskutsua zelako. Kapa beltz batekin agertu zitzaion. Alfonbra izututa ihes egiten saiatu zen baina Alik ez zion utzi eta orduan, berarekin eraman zuen bere jauregira. Jauregian esperimentuak egiteko erabiltzen zuten gure alfonbratxoa. Merlin oso kezkatuta kalera irten zen baina ez zuen ezer aurkitu. Bat-batean handikan aurkitu zuen oihal zatitxo bat. Merlin gero laborategira joan zen eta oihala aztertu zuen. Merlinek atsekabe ederra hartu zuen bere lagun Alik lapurtu zuela jakitean. Bere kapa hartu eta Merlinek Aliren jauregira abiatu zen amorru bizian. Jauregira sartu zenean, han ikusten zuen bere alfonbratxo kuttuna zerbitzari bezala lanean. Bat-batean Alik Merlin ikusi zuen eta ezpalako agurra eman zion. Merlinek Aliri bere alfonbra

zela esatean Alik dena ulertu zuen eta bere
algonbratxoa itzuli zion Alik Merlini. Ali eta Merlin
aspaldiko lagunak zirenez Alik afari bat egin zuen
Merlinen eta algonbraren ohorez.

Hurrengo egunean hau ikusten zuen Merlinek
Kleopatra bere etxean. Ordu bat ibili ziren hitz
egiten eta Kleopatrak esan zion
algonbra eramatera zetorrela.
Lehenengotan Merlinek ez zuen uler-
tu baina azkenean ulertu zuen.



Orain algonbrak Egiptotik gutun
asko bidaltzen dizkio Merlini
eta Merlinek Euskaditik ere bai.

Irati
Etxaniz



## ARKAITZ SASTRE ALDANA

**L.H. 3. zikloa**

**Munduari Begira**

**“Nire zaletasunak: marrazkiak egitea eta futbolean jokatzea”**



Egun batean inguruneko saioan telbistako dokumental bat ekustera joan ziren, eta dokumental hartan zioen kutsatzen jarraitu ezkero mundua bukatuko dela. Orduan Ibai beldurtu egin zen eta burua bueltaka hasi zitzaion, bazekien ezinezkoa zela kutsadura gutxiagotzeaz jendea konbentzitzea. Eskolan kutsadura handia zegoen eta proposamen bat egin zuen, eskola guztietan errezikletzea eta hala egin zuten.

Handik urte batzuetara eskolak hobetzen joan ziren eta gainera unibertsitatera joateko ordua iritsi zitzaion Ibairi. Inguruneko maisu egin zen eta omenaldi bat egin zioten eskerrak emanez, eskolak hobera joan zirelako eta bere inguruneko klaseak munduko onenetarikoak zirelako.



Garaia heldu zitzaionean Ibai ezkondu egin zen eta bi ume izan zituen; Markel eta Leire izenekoak. Markel futbolista egin zen eta Leire zoo bateko arduraduna. Ibai herriko alkate izendatu zuten eta lehenengo egin zuena zakarrontzi gehiago jartzea izan zen eta gero gerozkoak, pobreei lagundu, aparkaleku gehiago egin etab.



MOD. 190837